

ENPLEGAGARRITASUNA HOBETZEKO IBILBIDE ESPEZIFIKOETAN PARTE HARTZEN DUTEN LANGABETUAK KONTRATATZEKO LAGUNTZA- PROGRAMAREN ARAUTZEKO OINARRIAK. EKONOMIA BULTZATZKO PLANA DSS2022

ATARIKOA

Donostiako Sustapena SAK, Donostiako Udalean garapen ekonomikoaz arduratzen den sozietateak, besteak beste, hiriaren garapen ekonomikoa eta soziala bultzatzea du helburu, batez ere kohesio eta jasangarritasun irizpideak erabiliz; horretarako, hiriko hainbat eragileren arteko adostasuna eta lankidetzeta sustatu nahi du, gure hiria eraldatzeko eredutzat hartutako berrikuntzaren alde apustu argia eginda.

2011tik, Donostiako Sustapenak eta Donostiako Udalak estrategia hori urtean zehar ezartzeko tresna daukate eskura: Ekonomia Bultzatzeko Plana.

Tresna horrek, goranzko bilakaerari eta ezarritako helburuak betetzeari esker dagoeneko finkatuak, ahalbidetu du hiriko gizarte eta ekonomia alorreko hainbat erronkari aurre egitea, tokiko mailan, baita maila globalean ere, azken 10 urteetan, hiriaren lehiakortasuna eta posizionamendua hobetuz.

Pandemiaren intzidentzia handiaren ondorioz zaila zen 2021. urtea emaitza onekin gaindituta, Donostiako Sustapenak tokiko Ekonomia Bultzatzeko Plan berri bat proposatzen du 2022rako.

2022. urterako plan berriak bide berri bat hastea proposatzen du, aurrera egitearen eta etorkizunari aurre ematearen alde eginez; horretarako, pertsonengan zentratutako ekintzak sustatuko dira, proiektu berritzaileen garapena lagunduko da eta tokiko ekosisteman garrantzitsuenak diren eta proiektu horiek, talentua eta hiriaren garapena sustatzen lagun dezaketen eragileekin sarean lan egingo da.

Marko horretan, 2021eko Planaren inpaktua aztertuta eta tokiko eragile sozioekonomikoekin batera hiriaren erronkak zehaztuta, bai tokikoak, baita globalak ere, nazioarteko mailan daukagun egoerak bultzatzen dituen erronkak integratuz, Donostiako Sustapenak Ekonomia Bultzatzeko 2022ko Plana proposatzen du, honako helburu hauek lortu nahi dituena:

Donostia hiri kohesioduna izatea, lan aukera berriak sortzen dituena, arreta berezia zailtasun handienak dituzten kolektiboengan jarrita. Donostia hiri ekintzailea izatea, tokiko lehiakortasuna areagotzen duten enpresa proiektuak bultzatzen dituena.

Donostia zerbitzuen hiria izatea, kalitatezko merkataritza sare berritzailearen alde apustu egiten duena.

Donostia zientzian eta berrikuntzan oinarritutako garapen ekonomikoaren eredia izatea.

Donostia Hiri Eraldaketako prozesu berritzaileak probatzeko hiri laborategia izatea.

5 ardatz horien bidez, Donostiako Sustapenak jarraitu nahi du hiria lehiakorrago eta berritzaileago bihurtzen; aldi berean, hiri sozialagoa, irekiagoa eta kohesionatuagoa izatea lortu nahi du, gazteen alde, berdintasunaren alde eta auzoen arteko kohesio sozialaren alde egiten duen eredia bultzatzeaz gain.

Gaur egungo langabeziaren testuinguruan, krisiak Donostiako langabezia tasan izaten duen eragina nabarmentzen da: 2021eko abenduan % 8,32ra iritsi da (% 7,61 gizonezkoen artean eta % 8,99 emakumezkoen artean); guztira 7.367 pertsona daude langabezian erregistratuta eta, datuen arabera, goranzko joerak jarraituko du, batez ere, kolektibo behartsuenen artean. Bestaldetik, datuen azterketak adierazten du langabezian dauden pertsona asko (% 47,5) iraupen luzeko langabetuak direla; gehiago nabaritzen da adin handiagoko pertsonen artean eta emakumeen artean. Donostiako langabetuen % 56,8 45 urte edo gehiagoko pertsonak dira, eta haien artean % 56,4 emakumeak dira; emakumeak, gainera, langabetuen kolektibo guztietan nagusitzen dira, atzerritarren kolektiboan eta 30 urtetik beherako gazteen artean izan ezik.

Pertsona horien kontratazioa bultzatzeko, Donostiako Sustapenak abian jartzen du kontrataziorako dirulaguntzen deialdi hau; laguntzak sektore jakin batzuetan diharduten eta sektore soziosanitarioari, administrazioari eta hotelen jarduerari lotutako prestakuntza ibilbideetatik datozen pertsonak kontratatu nahi dituzten enpresei zuzenduta daude, baita arlo orokorretan diharduten enpresei ere, baldin eta kolektibo horietako pertsonak kontratatu nahi badituzte.

XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA. HELBURUA

Laguntza horien bidez bultzatu nahi da honako jarduera ildo hauetako batean kontratatuko diren langabetuak laneratzea:

A lerroa: Jarduera zentroa Donostiako udal-mugaratean daukaten enpresak, sektore soziosanitarioan, administrazioan eta hotelen jardueran dihardutenak.

B lerroa: Jarduera zentroa Donostiako udal-mugaratean daukaten enpresak, beste edozein sektoretako negozioetan dihardutenak.

Horretarako, abian jartzen dira honako laguntza hauek, langabetuen kontratazioak bultzatzeko.

2. ARTIKULUA. BALIABIDE EKONOMIKOAK

Donostiako Sustapenak guztira BERREHUN BERROGEITA HAMAR MILA (250.000 €) EURO jarriko du, eta kopuru hori jarraian adierazitako moduan banatuko du:

- **A lerroa:** Donostiako Sustapenak EHUN MILA (100.000 €) EURO jarriko du, eta
- **B lerroa:** Donostiako Sustapenak EHUN ETA BERROGEITA HAMAR MILA (150.000 €) EURO jarriko du.

Donostiako Sustapena SAK beretzat gordetzen du zenbatekoa aldatzeko eskubidea, bidezkoa dela jotzen badu.

Laguntza bakar bat eskatu ahal izango da, eta A lerroko edo B lerroko laguntzen artean aukeratu behar izango da.

Aurrekoa kontuan izanik, ezin izango da lerro bakoitzeko laguntza bat eskatu, eta, beraz, lerroetako bat aukeratuz gero, ezingo da bestea aukeratu.

3. ARTIKULUA. ONURADUNAK

Pertsona onuraduntzat hartuko da dirulaguntza jaso zuen jarduera egin behar duena edo dirulaguntza ematea legitimatzen duen egoeran dagoena, baldin eta Oinarri hauetan jasotako baldintzak betetzen baditu, batez ere, laguntza mota bakoitzari dagozkionak.

Dirulaguntzen onuradun izan daitezke: pertsona fisiko edo juridikoak, publiko zein pribatuak, estatukoak edo atzerrikoak, baita aurrekoen izaerarik ez duten elkarteak ere, behar bezala – ordenamendu juridikoarekin bat– eratuta badaude eta Oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte. Kanpo geratzen dira ondare sozietateak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 14. artikuluan zehaztutakoak.

Oinarri hauetan, dagozkion laguntzak eskatzeko bete behar diren baldintzak eta haiek egiaztatzeko moduak zehaztuko dira; izan ere, kasu guztietan Dirulaguntzen Lege Orokorraren 13. artikuluan aurreikusitakoa bete beharko da. Ondorio horietarako, aipatu legea aplikatu behar dela esanbidez adierazten da.

Laguntza ezin izango zaie pertsona fisiko edo juridikoei eman honako kasu hauetan:

- Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga betebeharrak eta/edo Gizarte Segurantzarekikoak betetzen ez badituzte.
- Ebazpen irmo baten bidez dirulaguntza eta/edo laguntza publikoak jaso ahal izateko aukera galtzea dakarren zigorra ezarri bazaie, edota horretarako ezgaitzen duen lege debekua badute, sexuan oinarritutako diskriminazioagatik ezarritakoak barne, Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean xedatutakoaren arabera.
- Donostiako Udalarekin eta/edo Donostiako Sustapenarekin zorrak badituzte.
- Lehenago eman zaizkien dirulaguntzak edo horien zati bat oraindik itzuli ez badute, dagoen zenbatekoa itzuli dela egiaztatzen ez den bitartean.

4. ARTIKULUA. ONURADUNEK DEIALDI HONETAN PARTE HARTZEKO BETE BEHAR DITUZTEN BALDINTZAK

Tokiko enpresatzat hartuko dira Donostiako udal-mugartean lantokia eta jarduera ekonomikoa duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuak.

Onuradun izan ahalko dira sektore soziosanitarioan, administrazioan eta hotelen jardueran diharduten fundazio, elkarte eta irabazteko asmorik gabeko erakunde guztiak (A lerroa) edo beste edozein jarduera sektoretan dihardutenak (B lerroa), jarraian aipatzen diren mugak errespetatuz gero:

Honako hauek ezin izango dira onuradun izan:

- Sektore Publikoko erakundeen (hau da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa Espainiako ordenamendu juridikora egiten duen Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 3. artikuluan jasota daudenen), irabazi asmorik gabeko erakundeen, ondare sozietate eta/edo profesionalen elkargoen menpe dauden erakundeak, ezta aipatutako horietan % 25etik gorako partaidetza duten erakundeak ere.
- Aldi baterako laneko enpresak.

5. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNTZEKO KONTZEPTUAK ETA DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA

Zaugarritasun-egoeran edo gizarte bazterkeria-arriskuan diren hiriko pertsona langabeen kontratazioak, horien **laneratzea bultzatzeko xedez**, jarduera-zentroa Donostiako udal barrutian kokatuta duten enpresatan.

Kontratazioek Donostian kokatutako lanlekuetara atxikita egon beharko dute.

A Lerroa: 6.000,00 euroko oinarrizko laguntza jardun osoan edo jardun osoko kontratu mugagabeen gutxienez 6 hilabeteko iraupena duen lan-kontratu bakoitzeko, sektore hauetakoren batean Ziurtagiri Profesionala gainditu eta lortu duen pertsona bati egindakoa: Soziosanitarioa, Hotelak edota Administrazioa. Profesionaltasun Ziurtagiriaren hasiera-datak 2021eko azken lauhilekoaren barnekoak izan beharko dira eta 2022an amaituak.

Laguntza % 10 areagotuko da kontratatzen den pertsona kolektibo hauetakoren batekoa denean:

- ✓ Iraupen luzeko langabetuak: Lanbide Zerbitzuan (Euskal Enplegu Zerbitzua) kontratazioaren aurreko 18 hilabeteetan izen emandako pertsonak, betiere, denbora horretan, gutxienez, 12 hilabete langabezian egon badira.
- ✓ Emakumeak.
- ✓ 45 urtetik gorako pertsonak, kontratuaren hasierako egunez.
- ✓ DSBE errentaren titular edo onuradun diren jasotzaileak.
- ✓ 35 urtetik beherako pertsonak, kontratuaren hasierako egunez.

B Lerroa: 6.000,00 euroko oinarrizko laguntza **jardun osoan edo jardun osoko kontratu mugagabeen** gutxienez 6 hilabeteko iraupena duen lan-kontratu bakoitzeko, edozein jarduera-sektoretan, kolektibo hauetakoren batekoa den pertsona bati egindakoa:

- ✓ Iraupen luzeko langabetuak: Lanbide Zerbitzuan (Euskal Enplegu Zerbitzua) kontratazioaren aurreko 18 hilabeteetan izen emandako pertsonak, betiere, denbora horretan, gutxienez, 12 hilabete langabezia egon badira.
- ✓ Emakumeak.
- ✓ 45 urtetik gorako pertsonak, kontratuaren hasierako egunez.
- ✓ DSBE errentaren titular edo onuradun diren jasotzaileak.
- ✓ 35 urtetik beherako pertsonak, kontratuaren hasierako egunez.

Laguntza % 10 areagotuko da kontratatzen den pertsonak Donostia Sustapeneko enplegarritasuna hobetzeko 2021. eta 2022. urteetako enplegu-prestakuntzako orientazio edota programako zerbitzuetan parte hartu badu.

3 hilabetetik gorako iraupena eta lanaldi partziala duten kontratazio guztietan (A edo B lerroa), diru-laguntza (laguntzaren gehieneko muga) lan egindako lanaldiarekiko eta kontratuaren iraupenarekiko proportzionala izango da, eta lanaldi hori ezin izango da % 50etik beherakoa izan.

Azken zenbatekoa ezin izango da kontratatutako pertsonaren soldata-kostuen eta Gizarte Segurantzaren kostuen % 100 baino handiagoa izan, kontratu-amaierako kalte-ordainak barne, ez eta enpresaren konturako Gizarte Segurantzaren kuota ere, dagozkion hobariak eta/edo kenkariak deskontatu ondoren.

Laguntza eskatu ondoren egiten diren goranzko lanaldi-aldaketek ez dute eraginik izango azken justifikazioaren ondoren ematen den laguntzaren azken ebazpenean. Izan ere, zenbateko hori ezingo da izan laguntzaren hasierako emakida baino handiagoa

Kontratutako pertsonen eta lan kontratazioen laguntza jasotzeko bete behar dituzten gutxienezko baldintzak:

A eta B lerroetan **kontratutako pertsona** guztiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte gutxienez:

- a) Kontratutakoak **langabeak** izango dira, eta **Lanbide-EEZn** (Euskal Enplegu Zerbitzua) enplegu eskatzaile gisa **izena emanda** egon behar dute. Izena emateko eguna lan harremana hasteko eguna baino lehenagokoa izango da.
- b) Langabetuak ezin dira egon Gizarte Segurantzako erregimenetako batean langile gisa izena emanda, gutxienez lan harremana hasi aurreko egunetik aurrera.
- c) Kontratutako diren pertsonen, kontratazioa hasi aurreko datan eta, gutxienez, lan harremana hasi aurreko egunean, **Donostian erroldatuta egon behar dute**. Gutxienez, lan harremana hasten den egunean eta aurre-aurrekoan erroldatzea frogatzen dutenak bakarrik izango dira onargarriak. Erroldatzeari dagokionez, Gipuzkoako Sozietateen gaineko Zergaren inguruko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 42. artikuluan

aurreikusitako baldintzetan, erakunde kontratatzailearekin (pertsona onuraduna) edo beste edozein erakunderekin artikulua horretan ezarritakoaren arabera lotuta dagoen pertsona fisiko batena ez den helbide batean izan behar da. Era berean, baldintza hori betetzen dela jotzeko, ez dira kontuan izango kontratatuko den pertsonak Donostiako hirian lehenago izan zituen erroldatzeak, baldin eta eten badira, edozein arrazoi dela medio.

- d) Bereziki, A lerroan kontratatutako pertsonak sektore hauetako batean gainditutako eta lortutako Lanbide Ziuertagiria eduki behar dute: soziosanitarioa, hotelen jarduera eta/edo administrazioa. Profesionaltasun Ziuertagiria hasteko eguna 2021eko azken lauhilekokoak izango da, eta 2022. urtean bukatu beharko da. Prestakuntza zentroak emandako ziuertagiri ofiziala aurkeztu beharko da pertsonak Lanbide Ziuertagiria lortzeko modulu osoa edo, gutxienez, atal teorikoa gainditu duela egiaztatzeko, baldin eta praktikaldiaren zati baten ordean dirulaguntza hauen xede den lan kontratua egiten bada. Laguntzen xede diren profesionaltasun ziuertagiriak honako hauek izango dira:

- MENDEKO PERTSONEI ARRETA SOZIOSANITARIOA EMATEA ERAKUNDE SOZIALETAN (SSCS0208)
- OSTATUETAKO SOLAIRUETAKO OINARRIZKO LANAK (HOTA0108)
- ADMINISTRAZIO-KUDEAKETAKO JARDUERAK (ADGD0308)

Lan **kontratazioek** honako baldintza hauek bete beharko dituzte, dirulaguntza jasotzeko aukera izan dezaten:

- a) **A lerroa:** lan kontratua hasteko data 2022ko apirilaren 1etik eta **2022ko irailaren 30era** bitartekoa izango da.
- b) **B lerroa:** lan kontratua hasteko data 2022ko apirilaren 1etik eta **2022ko urriaren 31ra** bitartekoa izango da.
- c) Kontratazioak gutxienez 3 hilabetekoak izango dira, eta gutxienez % 50eko lanaldikoak.
- d) Kontratazioa diruz lagundutako denboraldian eta gutxienerako lanaldian mantendu beharko da. Lan harremana dirulaguntzaren xedeko denboraldia bukatu baino lehenago amaitzen bada, laguntza ukatuko da, lan harreman hori arrazoi objektiboak medio edo langilearenak ez diren arrazoiak medio amaitzen denean izan ezik; horrelakoetan, justifikazioa eman beharko da eta dirulaguntzaren zenbatekoa jaitsi egingo da, lan kontratuaren benetako iraupenaren araberrako proportzioan.
- e) Aldizkako langile finkoen kontratu mugagabea diruz lagundu nahi izanez gero, kontratuak gutxienerako iraunaldia eta lanaldia bete beharko ditu: gutxienez 3 hilabeteko iraupena eta gutxienez % 50eko lanaldia, 5. ARTIKULUAN (DIRUZ LAGUNTZEKO KONTZEPTUAK ETA DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA) jasota dagoen moduan.

Ez dira diruz laguntzeko modukoak honako kontratazio hauek:

- Oinarri hauen 5. artikuluan modalitate bakoitzerako azaltzen den iraupena edo lanaldia baino iraupen laburragoa edo lanaldi txikiagoa duten kontratazioak.

- Gipuzkoako Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 42. artikuluan aurreikusitako baldintzetan, pertsona onuradunarekin lotuta dagoen pertsona fisiko baten kontratazioa.
- Ezkontidearen eta izatezko bikotekidearen kontratazioa (maiatzaren 7ko 2/2003 Legean ezarritakoaren arabera eratutako izatezko bikoteak), aurreko, ondorengo edo bigarren mailako zehar-ahaidearen kontratazioa (loturaren jatorria ahaidetasunean, odolkidetasunean, izatezko bikotearen eraketan sortzen den harremanean edo onuradunaren adopzioan badu ere), ezta –Gipuzkoako Elkartearen Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 42. artikuluan 3. apartatuarekin bat– onuradun horrekin lotura duten pertsonatzat jotzen direnen kontratazioa ere.
- Ez da onartuko kontratuak batzea edo metatzea. Dirulaguntzaren xede den laguntza bakoitzeko kontratu bakarra onartuko da.
- Dirulaguntza eskatu eta gero egindako kontratuen luzapenak ez dira onartuko.
- Lanaldiaren aldaketa izan duten kontratuak, aldaketaren helburua hasierako lanaldia handitzea izan ez bada; halakoetan, emandako laguntzaren zenbatekoa ez da aldatuko.

6. ARTIKULUA. BESTE LAGUNTZA BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA

Laguntza horiek ez dira bateragarriak izango administrazio batek edo erakunde publiko edo pribatu batek (estatuko, Europar Batasuneko edo nazioartekoak) helburu eta aldi berbererako emandako beste laguntza batzuekin. Dena den, bateragarriak izango dira Gizarte Segurantzako kuoten hobariekin edo murriztapenekin, indarrean dagoen legediaren arabera halakorik balego.

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzek Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 Erregelamenduan (EB) ezarritako *de minimis* arauak beteko dituzte. Aipatutako araudia Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 107. eta 108. artikulua *de minimis* laguntzei aplikatzeari buruzkoa da, eta 2013ko abenduaren 24ko Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratu zen.

5. artikuluan aipatzen diren gastu kontzeptuetako baterako laguntza jaso baldin bada, ezingo da laguntzarik eskatu, eta ezingo dira kontzeptu berean barneratzen diren gastuak justifikatu.

7. ARTIKULUA. ESKAERAK ETA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Eskaerak aurkezteko epeari dagokionez, oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta laguntza horietarako baliabide ekonomikoak agortu arte iraungo du, Oinarri hauen 2. artikuluan arabera (kasu horretan, baliabideak agortu izanaren berri Donostiako Sustapenaren webgunean emango da) edo, bestela, deialdia itxi arte, hots, 2022ko azaroaren 30era arte (Donostiako Sustapenak beretzat gordetzen du epea luzatzeko eskubidea, deialdia ixteko eguna iritsita eskura daitezkeen baliabide ekonomikoak geratzen badira eta/edo Donostiako Sustapenak egokitzat jotzen badu).

Eskaerak bide telematikoz aurkeztu behar izango dira, Donostiako Sustapenaren webgunearen bidez (www.fomentosansebastian.eus).

Eranskinak osorik bete beharko dira, eta behar bezala sinatuta egon beharko dute.

Dagokion eskabide orriari Oinarri hauetan eskatzen den administrazio agiri guztiak erantsiko zaizkio.

Edozein informazio eskatzeko edo galdera egiteko, 943 482800 telefonoa erabil daiteke, edo fomentoss@donostia.eus helbide elektronikoa, gaian honako hau adierazita: KONTRATAZIORAKO LAGUNTZAK, ENPLEGU ETA PRESTAKUNTZA IBILBIDEEI LOTURIKOAK-2022.

Jendearentzako ordutegia Donostiako Sustapenaren webgunean adierazitakoa da.

Dirulaguntza horiek eskatu nahi duten enpresa edo erakundeek honako **dokumentu** hauek aurkeztu beharko dituzte:

1. **“Eskaera”** eranskin orria.
2. **“Bankuko datuak”** eranskin orria, dagokion banku erakundeak zigilatua, edo banku agiri baliokidea.
3. **“Kontratazioaren datuak”** eranskin orria.
4. Pertsona fisikoa bada, eskatzailearen NAN agiriaren kopia.
5. Pertsona juridikoa bada, eskatzailearen IFK agiriaren kopia eta, hala badagokio, ahalordedunaren NAN agiria.
6. Eskatzaileak Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.
7. **Laneko kontratuaren kopia**, honako baldintza hauek egiaztatzea ahalbidetzen duena: iraupena, lanaldia, lantokia, beteko den lanpostua eta **ordainduko den urteko soldata gordinaren zenbatekoa (eurotan)**. Mugagabe bihurtutako aldi baterako kontratuen kasuan, aldaketa hori egiaztatzen duen dokumentua ere erantsi beharko da.
8. **Lan kontratuaren komunikazioa**, betetzen den zeregina adierazita.
9. **Kontratutako pertsonaren NAN/AIZ** agiriaren kopia.
10. Lanbideak kontratazioa hasi ondoren emandako **“Inskripzio epealdien txostena”** izenburuko dokumentua.
11. Gizarte Segurantzak bidalitako **langilearen Lan Bitza osoaren txostena**, laguntzaren xede den kontratua hasi eta gero emandakoa.
12. Donostiako Udalak igorritako **errolda ziurtagiria**, kontratuaren xede den pertsonaren kontratazio data baino beranduago emandakoa, edo kontratatutako pertsonak Donostia Sustapenari emandako hura eskatzeko baimena (“Kontratazioaren datuak” eranskinean dago).
13. **A lerrorako aurkeztu beharko da** dirulaguntzen xede diren eta 5.d) artikuluan aipatzen diren sektoreetako batean **profesionaltasun ziurtagiria gainditu izanaren egiaztatzea**, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak homologatutako lanbide heziketako zentroak emandakoa.
14. **Hurrengo kolektiboen kasuan, gainera, hauek helarazi beharko dira:**

- a. Iraupen luzeko langabezia dagoen pertsona: **Lanbidek emandako "Inskripzio epealdien eta lan egoeraren txostena"**, kontratazio dataren aurreko azken 18 hilabeteetako egoera azaltzen duena.
- b. Kontratatu den pertsona diru sarrerak bermatzeko errentaren titularra edo onuraduna denean, **Lanbidek emandako ziurtagiria –egoera hori egiaztatzen duena– aurkeztu beharko du.**

Aurreko apartatuak (1etik 6ra bitartean) aipatzen dituzten dokumentuei dagokienez, eskaera aurkeztu duen pertsonak edo erakundeak aipatutako agirietako bat aldeztirik aurkeztu badu, 2018. urtearen geroztik Donostiako Sustapenaren laguntzen programa batean parte hartu duelako, ez du berriro aurkeztu beharko dagoeneko eman zuen dokumentazio hori, oraindik indarrean badago eta/edo aldatu ez bada.

Donostiako Sustapenak zuzenean –ziurtagiri telematikoen bidez– eskuratuko du zerga betebeharrak betetzearen egiaztatpena (Gipuzkoako Foru Ogasuna eta Udal Zerga Bilketa), baita jarduera ekonomikoaren gaineko zergan izandako gorabeheren zerrenda ere (altak, bajak, aldaketak, jarduera epigrafeak), Gipuzkoako Foru Ogasunak igorritakoa.

Eskatzaileak espresuki egin dezake Donostiako Sustapenak datu horiek egiaztatzearen aurka eta, halakorik eginez gero, erabaki horren arrazoiak azaldu (Datu Babesari buruzko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21. artikulua) eta dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu:

- Dirulaguntza eskatzen duen enpresak dagozkion zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.
- Jarduera ekonomikoaren agiri eguneratua; dirulaguntza eskatzen duen enpresaren jardueran izandako aldaketan zerrenda, Gipuzkoako Foru Aldundiak igorritakoa.
- Donostiako Udalaren ziurtapena, dirulaguntzaren eskatzaileak udalarekin zorrik ez duela egiaztatzen duena.

Zergak Gipuzkoako Lurralde Historikotik kanpo ordaintzen dituztenek dagozkion ogasunen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte beti.

Dirulaguntza eskatzeko eta ordainketak egiteko unean, Udal Zerga Bilketa, Foru Ogasun eta/edo Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen ez dituzten erakundeek baldintza hori betetzen dutela egiaztatu beharko dute.

Onuradunak bere gain hartzen du erantzukizun osoa, erantzukizunpeko adierazpenen, emandako informazio osoaren eta aurkezten dituen beste dokumentu guztien egiazkotasunari dagokionez.

8. ARTIKULUA. ESKAERETAKO AKATSAK ZUZENTZEA

Donostiako Sustapenak dokumentazio osoa aztertu ondoren bete gabe dagoela edo agiriren bat falta dela egiaztatzen bada, errekerimendua egingo zaio eskatzaileari gehienez ere hamar egun balioduneko epean gabeziak zuzendu edo nahitaezko dokumentuak aurkez ditzan; halaber, jakinaraziko zaio horrela egiten ez bada, eskaera baztertuko dela, izapide gehiagorik gabe eta, ondorioz, ezezko ebazpena emango dela. Dokumentazio administratiboa zein dirulaguntza mota bakoitzaren berriazko dokumentazioa zuzendu ahal izango da. Gainera, komeni dela jotzen duenean, Donostiako Sustapenak beretzat gordetzen

du pertsona edo erakunde eskatzaileak aurkeztutako dokumentuetako bati edo informazioari buruz egoki deritzen azalpen guztiak eskatzeko eskubidea.

Zuzenketak onuradunak harremanetarako e-mail gisa adierazi duen helbide elektronikoaren bidez helaraziko dira. (JAKINARAZPENAK EGITEKO HELBIDE ELEKTRONIKOA). Edozein modutan: jakinarazpenak web aplikazioan ere egongo dira eskuragai eskaera egin duen pertsona edo erakundearen espedientean.

Akatsak zuzentzeko eskatutako dokumentazioa aurkezteko, hasierako eskaera egiteko erabili zen bide bera erabiliko da. Posta elektronikoa bidez bidalitako zuzenketak ez dira onartuko.

Laguntza bat emateko edo ukatzeko, Donostiako Sustapenak esanbidezko ebazpen arrazoitua emango du, Oinarri hauetan ezarritako betekizun eta baldintza guzti-guztiak betetzen diren ala ez kontuan hartuta.

9. ARTIKULUA. LAGUNTZA IZAPIDETZEA ETA EBAZTEA

Eskaerak erregistroan sartzeko hurrenkerari jarraikiz ebaluatu eta ebatziko dira, dirulaguntza horiei esleitutako baliabide ekonomikoak agortu arte.

Eskatutako dirulaguntzari buruzko ebazpena emateko epea lau hilabetekoa izango da, eskaera erregistratzen den egunetik hasita, administrazioko dokumentazioa zuzentzeko aldiak epe horren barruan kontuan izan gabe; aldi horietan eten egingo dira epeak. Dirulaguntza emateko ebazpena ezarritako epean ematen ez bada, ez du esan nahi dirulaguntza eman denik.

Eskaera ebazte aldera, derrigorrean aurkeztu beharreko dokumentazioa aztertuko du Donostiako Sustapenak. Eskatu gabe aurkezten den bestelako dokumentazio guztia ez da aztertu behar dirulaguntzari buruzko ebazpena emateko.

Eskatzaileak jaso nahi dituen gehikuntzak adierazi behar dituzte eskaeran. Donostiako Sustapenak erabakiko du eskatzaileak eskatutako gehikuntzak jasotzeko baldintzak betetzen dituen ala ez, eta ez da behartuta egongo eskaerari erantsitako agirian adierazi ez diren gehikuntzak aintzat hartzea.

Kolektiboa dela eta ematen diren gehikuntzen kasuan, 7. artikuluan aipatutako dokumentazioa oinarri harturik egingo da azterketa.

Laguntza emateko edo ukatzeko, Donostiako Sustapenak esanbidezko ebazpen arrazoitua emango du, Oinarri hauetan ezarritako betekizun eta baldintza guzti-guztiak betetzen diren ala ez kontuan hartuta.

Ebazpenak helbide elektronikoz jakinaraziko zaizkie eskatzaileei, eskabide orrian "Jakinarazpenetarako helbide elektronikoa" apartatuan adierazitako helbidearen bidez; web aplikazioan ere egongo dira eskuragai, erakunde edo pertsona eskatzaile bakoitzaren espedientean; horrez gain, onuradunen zerrenda argitaratuko da.

-Deialdi honi buruzko jakinarazpenak bitarteko elektronikoez bidaliko dira, eskaeran adierazitako helbide elektronikora, eta, gainera, web orrialdean egongo dira, erakunde edo pertsona eskatzaile bakoitzaren espedientean.

Eskatzailea ebazpenarekin ados ez badago, alegazioak aurkeztu ahal izango ditu gehienez ere hilabeteko epean –ebazpena ematen den egunetik aurrera–; Donostiako Sustapenak erabakitakoa bete beharko da, eta, hala beharrez gero, bi aldeak Donostiako epaitegien eta auzitegien jurisdikzioaren mende geratuko dira.

Era berean, aurrekonturik eza dela eta pertsona fisiko edo juridiko batzuk dirulaguntzarik gabe geratu badira, Donostiako Sustapenak erreserbako eskaeren zerrenda bat osatuko du, erregistroan sartzeko hurrenkeraren arabera, etorkizunean aurrekontua izanez gero, eskatzaile horiei dirulaguntzak eskaini ahal izateko.

10. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZAK JUSTIFIKATZEA ETA ORDAINTZEA

Dirulaguntzak honela ordainduko dira:

Ordainketa bakarra, dirulaguntza justifikatu ondoren egingo dena.

Amaierako justifikazioa aurkezteko gehieneko epea egutegiko 60 egunekoa izango da, dirulaguntzaren xede den aldia amaitzen denetik. Epe hori eskaera egin ondoren emandako ebazpenean jasoko da.

Onuradunak honako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu:

- 1 Kontratatutako pertsonaren lan bizitzaren ziurtagiri eguneratua, eskatutako laguntzari dagokion denboraldian enpresan egongo dela egiaztatzen duena.
- 2 Kontratatutako pertsonaren Kotizazio Datuen Txostena – Soldatako Langileak (IDC agiria), justifikazio epealdiari dagokiona.
- 3 Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra emandako ziurtagiri eguneratua, betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.
- 4 Finantza txostena diruz laguntzen den aldian izandako benetako kostua (nominak eta gizarte segurantzaren) justifikatzen duena, eta erantzukizunpeko adierazpena, eskaera aurkeztu den egunera arte erakunde pribatu zein publikoetan helburu horretarako eskatutako eta jasotako gainerako dirulaguntzei buruzkoa. (“**Justifikazioa**” eranskinean dago).

5 Soldaten, Gizarte Segurantzako kuoten eta dagozkion ordainketen kopia. (Langileak sinatutako soldata agiriei ordainketa egiaztatariaren baliozkotasuna dute).

Dokumentazioa bide telematikoz aurkeztu beharko da. Posta elektronikoz bidez bidalitako egiaztariak ez dira onartuko. Era berean, eranskin guztiak osorik bete beharko dira.

Donostiako Sustapenak zuzenean –ziurtagiri telematikoen bidez– eskuratuko du zerga betebeharrak betetzearen egiaztapena (Gipuzkoako Foru Ogasuna eta Udal Zerga Bilketa).

Eskatzaileak espresuki egin dezake Donostiako Sustapenak datu horiek egiaztatzearen aurka eta, halakorik eginez gero, erabaki horren arrazoiak azaldu (Datu Babesari buruzko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21. artikulua) eta dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

Zergak Gipuzkoako Lurralde Historikotik kanpo ordaintzen dituztenek dagozkion ogasunen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte beti.

Dirulaguntza eta zenbait gehikuntza eskatzeko unean, Udal Zerga Bilketa, Foru Ogasun eta/edo Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen ez dituzten erakundeek ordainketa horiek egunean dituztela egiaztatu beharko dute.

Eskatzaileak Donostiako Sustapenak ziurtagiri telematikoa eskatzearen aurka egin badu espresuki edota zergak Gipuzkoako Lurralde Historikotik kanpo ordaintzen baditu, honako hauek ere aurkeztu beharko ditu:

- Dirulaguntza eskatzen duen enpresak dagozkion zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.
- Donostiako Udalaren ziurtagiriaren, dirulaguntzaren eskatzaileak udalarekin zorrik ez duela egiaztatzen duena.

Laguntzaren modalitate bakoitzerako ezarritako justifikazio epeak bete ezean, dagokion laguntzaren eskaera ezetsi dela joko da.

11. ARTIKULUA. PERTSONA ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Laguntza horien onuradun diren pertsonak Dirulaguntzen Lege Orokorreko 14. artikuluan jasotako betebeharrak hartuko dituzte bere gain; berariaz ezarritako betebeharrak bete izango dituzte, oro har:

- a) Dirulaguntza diruz laguntzen diren jardueretara bideratzea.
- b) Diruz laguntzeko moduko gastuak justifikatzeko eskatzen den dokumentazioa aurkezte, ezarritako moduan eta denboran.
- c) Jasotako dirulaguntzak zertan erabili diren egiaztatzen duten dokumentuak gordezea, horiek guztiak egiaztatu eta/edo kontrolatu baitaitezke; nolahi ere, aplikatu beharreko araudian ezarritako epean gordeko dira.

- d) Proiektua osatzen duten jardueren gastu eta diru-sarrera guztiak kontabilizatzea.
- e) Kontabilitate liburuak behar bezala eramatea, horretara behartuta egonez gero.
- f) Egunean izatea zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.
- g) Laguntzak emateko kontuan hartutako edozein inguruabar –subjektibo zein objektibo– aldatu baldin bada, Donostia Sustapenari horren berri ematea.
- h) Emandako laguntzei dagokienez, Donostia Sustapenak bere eginkizunak betez eskatzen duen informazio guztia ematea.
- i) Helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuk jasoz gero, Donostia Sustapenari horren berri ematea.
- j) Jasotako dirulaguntza dela eta Donostia Sustapenak dei ditzakeen jardunaldietan parte hartzea (proiektuen aurkezpena, jarduerak, emaitzen jarraipena eta abar).
- k) Laguntzaren xede den eskaeran aurkeztutako baldintzak aldatzen dituen edozein egoera gertatuz gero, Donostia Sustapenari jakinaraztea. Donostia Sustapenari laguntzea, hala badagokio, egin ditzakeen finantza kontroleko eta egiaztapeneko jarduketetan, eta bere esku jartzea eskatzen duen informazio eta dokumentazio guztia.
- l) Laguntzaren xede den jarduera gauzatzeko behar diren lizentzia eta baimen guztiak izatea.
- m) Oinarri hauetako 3. eta 4. artikuluetan adierazitako baldintzak betetzea.
- n) EAEko hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea (euskarari lehentasuna emanez) komunikazio euskarrietan (webgunea, sare sozialak, mailinga, megafonia eta abar), sustapen eta hedapen materialetan, antolatutako jardunaldi eta ekitaldietan eta abarretan.
- o) Erakunde eskatzaileek, testuak itzultzeko eta horiek zuzentzeko, Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuaren laguntza eskatu ahal izango dute (hilean gehienez ere 1.000 karaktere itzultzeko eta 9.000 karaktere zuzentzeko), baldin eta zerbitzuaren baldintzak eta ezaugarriak betetzen badira (<http://www.donostiaeuskaraz.eus/euskaraz/dirulaguntzak/lang/eu>).

12. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZAK ITZULTZEA

Onuraduna den pertsona fisiko edo juridikoak jasotako dirulaguntza –gehi diruaren legezko interesa, zenbatekoak ordaintzen diren unetik sortutakoa– itzuli beharko du, honako kasu hauetako edozein gertatuz gero:

- Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharrak modu larrian edo/eta behin eta berriz ez betetzea. Ez-betetze larritzat edo/eta behin eta berriz errepikatutzat hartuko da Oinarri hauetan ezarritako betebeharretako bat behin baino gehiagotan ez betetzea; aurkeztutako datu, ziurtagiri, txosten eta/edo agirietako baten faltsutasuna edo faltsutzea; eta/edo Oinarri hauen esparruan jasotako dirulaguntza osoa edo horren zati bat aurreikusitakoak ez diren helburuetara bideratzea.

- Dirulaguntzaren xedea Oinarri hauetan aurreikusitako moduan justifikatzeko betebeharra urratzea, eta behar bezala ez justifikatzea.
- Onuradunaren jarduerari buruz egin daitezkeen egiaztapen eta ikuskapenei kontra egitea, aitzakiak eta eragozpenak jartzea edo uko egitea, baita kontabilitate, erregistro edo dokumentu betebeharrak ez betetzea ere, baldin eta horren ondorioz ezin bada egiaztatu jasotako ekarpenei emandako erabilera, finantzatutako jardueren errealitatea eta erregularatasuna, edo edozein administraziok edo erakundek helburu bererako emandako dirulaguntzak, laguntzak, diru sarrerak edo baliabideak eskuratzea, izan horiek publikoak edo pribatuak, estatukoak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeetakoak.
- Jarduerak gehiegizko finantzaketa jaso badu, gainfinantzatutako zenbatekoan.

Aurrekoa kontuan izanik, dirulaguntza hauen onuradun izateko betekizunak une guztietan bete eta mantendu beharko dira. Bestela: Donostiako Sustapenak dirulaguntzak itzultzeko eskatu ahal izango du aurreko apartatuetan zehaztutako baldintzetan. Era berean, ez-betetze larrienen kasuetan, hala nola datuen faltsutasuna edo jasotako dirulaguntza –osorik edo zati batean– beste helburu baterako erabiltzea, Donostiako Sustapena gaitu egingo da emandako dirulaguntza ezeztatzea erabakitzeke eta, hala badagokio, jasotako zenbateko guztiak itzultzea errekeritzeko, jasotako zenbatekoaren halako bostaren baliokidea den zenbateko bat ordaintzea hertsiki eskatzeaz gain.

Dirulaguntza itzuli beharko da, eta Donostia Sustapena SAK onuradunari jakinaraziko dio Oinarriotan ezarritako arrazoiren bat gertatzen dela, jarraian deskribatutako baldintzetan.

Itzulketa egutegiko laurogeita hamar eguneko epean egin beharko da, Donostia Sustapena SAK onuradunari artikulu honetan aurreikusitako itzulketa arrazoiren bat dagoela burofax bidez jakinarazten dionetik zenbatzen hasita.

Era berean, eta aurreko apartatuetan ezarritakoaz gain, Donostiako Sustapena SAK beretzat gordetzen du Oinarri hauetan ezarritako betebeharrerako bat utzikeriagatik bete ez duten edo beren jokabidearen ondorioz fede onaren oinarritzko arauak urratu dituzten pertsona fisiko edo juridikoei Sustapenak eskaintzen dituen beste dirulaguntza edo onura batzuk eskuratzeko aukera BI (2) URTEZ eragozteko eskubidea.

13. ARTIKULUA. DATU PERTSONALAK BABESTEA

Datuak babesteari buruz indarrean den araudiarekin bat etorritik, Oinarri hauetan araututako laguntzen eskatzaileari jakinarazten zaio Donostiako Udalak bilduko dituela laguntzak izapidetu bitartean eta/edo horiek eman ondoren aurkeztutako edozein agiriren eta dagokion eskabidearen bidez ematen dituzten datu pertsonalak. Donostiako Udalak tratatzeko bilduko ditu datu horiek, eta hura izango da tratamenduaren arduraduna. Datuon kudeaketa, berriz, Donostia Sustapenak hartuko du bere gain, eta tratamenduaren eragile gisa jardungo du. Tratamenduaren helburua eskabidea kudeatzea eta laguntza horiek izapidetzea izango da.

Tratamenduaren zilegitasun oinarria Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1.e) artikulua da, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (DBEO). Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo

tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak egikaritzeko egindako misio bat betetzeko: 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa; 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriari buruzkoa; eta 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, dirulaguntzei buruzkoa.

Oinarri hauetan edo eskabide inprimakietan hala adierazten bada, nahitaezkoa izango da datu pertsonalei buruz eskatzen den informazioa ematea, eta datu akastunak emateak edo datuak ez hornitzeak eragotzi egingo du eskabidea kudeatzea.

Datuak bildu ziren helburua betetzeko behar den denbora guztian gordeko dira, bai eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator litezkeen erantzukizunak zehazteko beharrezko izan litekeen denbora guztian ere.

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzen onuradunek emandako datu pertsonalak Estatuko edo nazioz gairako erakundeei laga ahal izango zaizkie, baldin eta laguntza horiek batera finantzatzen badituzte eta/edo Donostia Sustapenarekin batera kudeatzen laguntzen badute, hori erabat beharrezkoa denean, eta emakida kudeatzeko soilik.

Era berean, jakinarazten da laguntzak emateak berekin ekarriko duela onuradunaren identifikazio datuak jakinaraztea edo lagatzea, eta, horretarako, datu horiek, emandako laguntzaren zenbatekoarekin batera, Donostia Sustapenaren webgunean argitaratuko direla, baita Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ere –azken kasu horretan, emandako laguntza 3.000 eurotik gorakoa denean bakarrik edo, zenbatekoa edozein izanda ere, eskatzeko modukoa denean–.

Eragindako pertsonen datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea baliatu ahal izango dute hala dagokionean, baita araudi honetan aurreikusitako bestelako eskubideak ere. Horretarako, Donostiako Udaleko Udalinfo zerbitzuarekin jarri beharko da harremanetan: Ijentea 1, 20003 Donostia.

Herritarrak bere eskubideak baliatzeko garaian behar bezalako arreta jaso ez badu, erreklamazio bat aurkeztu ahal izango du Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3. solairua, 01008 Vitoria-Gasteiz. Hala ere, lehen auzialdian, datuak babesteko Donostiako ordezkariari aurkeztu ahalko dio erreklamazioa: dbo@donostia.eus.

Ondorio horietarako, adierazten da eskatzaileak, eskaera aurkezten duenean, berariaz onartzen dituela aurreko lerroketan adierazitakoaren ondoriozko komunikazioak edo datu lagapenak.

14. ARTIKULUA. AZKEN XEDAPENA

Indarrean jartzea eta onartzea.

Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarriko dira, eta bertan argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean.

Eskaera aurkezteak Oinarriok erabat onartzen direla esan nahi du.

Erantzukizunetik salbuestea.

Onuraduna izango da laguntzaren xede den jarduera egin aurreko edo ondorengo jarduketan ondorioz sortzen diren kalte pertsonal eta/edo materialen erantzule bakarra, eta Donostia Sustapenak ez du inolako erantzukizunik izango kontzeptu horiengatik.

15. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA

Ematen diren dirulaguntzek oinarri hauetan jasotako arauak beteko dituzte, eta, modu osagarrian, Dirulaguntzen Lege Orokorrean eta hura garatzeko erregelamenduan jasotakoaren arabera (erregelamendu hori uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu zen), nahiz eta Dirulaguntzen Lege Orokorrean bildutako kudeaketa irizpideei eta lege horretako 20. artikulua bildutako informazio printzipioei dagokienez bakarrik izan –hori guztia lege horren 3.2 artikulua bigarren paragrafoa betez, hark ezartzen baitu aplikazio hori–.

Bestela, Dirulaguntzen Lege Orokorra eta hura garatzeko erregelamendua oinarriotan lege testu horien berriazko aipamena egiten denean bakarrik aplikatu beharko dira.

Donostia, 2022ko ekainaren 2a

Marisol Garmendia Beloqui

Ekologia, Osasun Publikoko, Garapen Ekonomikoko eta Enpleguko zinegotzi ordezkaria.